

## I. ERANSKINA

### ESKABIDEA, DEIALDIAN PARTE HARTZEKO, MUSIKA ESKOLA BEREZIKO IRAKASLE-LANPOSTUAN – GITARRA ESPEZIALITATEAN– ALDI BATERAKO ARITZE ALDERA

<b>IZEN-ABIZENAK</b>		
<b>NAN / AIZ</b>		<b>JAIOTEGUNA</b>
<b>NAZIONALITATEA</b>		<b>EGUNGO HELBIDEA</b>
<b>POSTA KODEA / HERRIA</b>	<b>TELEFONO MUGIKORRA</b>	<b>TELEFONO FINKOA</b>
<b>HELBIDE ELEKTRONIKOA</b>		

Desgaitasunaren egiaztapena. (Hala badagokio, soilik).

- Desgaitasuna dut, eta eskabidearekin batera egiaztatzen dut.
- Nire desgaitasuna dela-eta, eranstean dudana egokitzea eskatzen dut, adierazten ditudan arazoengatik. (Beste orri batean).

#### ADIERAZPENA:

Ez dut eritasun edo akats fisikorik edo psikikorik, karguan aritzea galarazten didanik, eta ez dut indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunik.

Ez naiz diziplina-espedita bidez bereizia izan inongo administrazio publikoren zerbitzutik, eta ez nago desgaituta edo gabetuta eginkizun publikoak betetzeko.

Deialdian eskatzen diren tituluen jabe naiz eta deialdiko baldintza guztiak betetzen ditut, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

Azterketarako eskubideak ordaindu ditut deialdian ezarritako moduan, eta horren ordainagiria erantsi dut.

Ez dut epai irmo baten bidez kondenarik jaso sexu-askatasunaren eta ukigabetasunaren aurkako delitu batengatik do gizakien salerosketengatik, eta, hartara:

- Giza Baliabideetako Idazkari Teknikoari baimena ematen diot egiaztagiri hori eska diezaion Sexu-delitugileen Erregistro Zentralari.
- Abenduaren 11ko 1110/2015 Errege Dekretuak araututako Sexu-delitugileen Erregistro Zentralaren ezezko egiaztagiria eranstean dut.

#### ESKAERA:

Onartua izatea hautaprobei bidez izangai-zerrenda bat osatzeko deialdian, MUSIKA ESKOLA BEREZIKO IRAKASLE lanpostuan –GITARRA ESPEZIALITATEAN– aldi baterako kontratu bidez aritze aldera (2143 kodea). Deialdiaren iragarkia 2021eko \_\_\_\_ Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, \_\_\_\_\_aren \_\_\_\_ (e)koan.

DATUEN BABESA. Iruñeko Udala da arduradun botere publikoak gauzatzu egiten diren lan-deialdiak kudeatzeko erabiliko diren datu pertsonalen tratamenduz. Oinarri Juridikoa: 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginari buruzkoa.

Datuak kontserbatzeko aldia: Datuak zertarako bildu diren eta helburu hori betetzeko behar den bitartean kontserbatuko dira, eta biltegiratuko dira Udalarri haien erabileratik etor dakioken erantzukizun edukit bitartean. Halaber, bete behar dira Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legeak ezarritako kontserbazio-arauak.

Datuen hartzaileak: Datuak epaileei eta epaitegiei lagatzen ahalko zaizkie, indarreko legeak betez, eta argitara emanen dira Udalaren webgunean eta iragarki-tauletan, deialdian adierazitakoarekin bat.

Eskubideak: Jakinarazten dizugu eskubidea duzula datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira– eta horiek ezabatzeko Erregistro Orokorrean (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz ([www.pamplona.es](http://www.pamplona.es)). Halaber, interesdunek erreklamazio bat egin dezakete Datuak Babesteko Espainiako Agentziari zuzenduta (Jorge Juan k. 6, 28001, Madril), idazki bat aurkeztuz edo egoitza elektronikoaren bidez, [www.agpd.es](http://www.agpd.es) webgunean.

Iruñean, 2021eko .....aren .....(e)(a)n  
(Sinadura)